




Euskara eta euskal kultura sustatzea helburu duen elkarte



Hemen zaude: [Hasiera](#) » [Aisia](#) » [Giro eguzkitsua, jendetza eta sagardo egarria, usurbildarren jai egun nagusi honetan](#)

Giro eguzkitsua, jendetza eta sagardo egarria, usurbildarren jai egun nagusi honetan

 noaUA  2018-05-20  Aisia, Euskara, Ingurumena, Jaiak, Jendartea, Kultura



Sagardo festa betean da orduotan Usurbil. Bertakoentzat kuttunena, bereziena den urteko jai egun garrantzitsuenean. laz bezala, bigarren urtez segidan, giro eguzkitsuak jendetza erakarri du aurten ere. Pentsa, eguerdi parterako grabaturiko edalontziak agortu dira. Igande pasa ezin ederragoa egiteko aitzakiarik ez da falta izan Usurbilen. Sagardo eskaintza zabala, edariari laguntzeko pintxo eskaintza ederra Askatasuna plazan... eta esandakoa, jendetza. Familia giroan hurbildu dira bat baino gehiago, baina lagun talde mordoak ikusi dugu.

Eta segidan dituzuen irudietan nabarmendu beharrekoa; auzolanaren balioa. Ezinbestekoa, Sagardo Eguna ospatu ahal izateko. Jai egun honi erabat lotua. Sagardo festa hau ospatzeko gogotik lan egin dute hainbat eta hainbat herritarrek postuetan. Zalantzarik gabe, bazen sagardo eta festa egarria.

Adi, 18:00ak aldera, herria dantzan jarriko duen "Elektro-Patxaranga" kaleetan zehar!





OLYMPUS DIGITAL CAMERA



OLYMPUS DIGITAL CAMERA



OLYMPUS DIGITAL CAMERA



OLYMPUS DIGITAL CAMERA



OLYMPUS DIGITAL CAMERA



OLYMPUS DIGITAL CAMERA



OLYMPUS DIGITAL CAMERA



OLYMPUS DIGITAL CAMERA



OLYMPUS DIGITAL CAMERA



OLYMPUS DIGITAL CAMERA



OLYMPUS DIGITAL CAMERA



OLYMPUS DIGITAL CAMERA



OLYMPUS DIGITAL CAMERA



OLYMPUS DIGITAL CAMERA



OLYMPUS DIGITAL CAMERA



OLYMPUS DIGITAL CAMERA



OLYMPUS DIGITAL CAMERA



OLYMPUS DIGITAL CAMERA